

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Enplegu publikoaren eskaintza onestea

Bat etorri Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/22 Legearen 24. artikuluan xedatutakoarekin arabera.

Ikusi da bai udalbatzak 2018ko ekainaren 6ko osoko bilkuran onetsitako lanpostu zerrendaren aldaketa, zeinak administrari lanpostu bat sortzen baitu, bai urriaren 15eko 201/2018 Dekretua, zeinaren bidez lanpostu hori aldi baterako betetzea erabakitzen baita bitarteko funtzionario izendapenez.

Kontuan hartu da Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/22 Legearen 22., 23. eta 24. artikuluetan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 70. artikuluan eta toki-administrazio funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoa.

Kontuan hartu dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera alkateari dagozkion eskumenak.

Alkate honek

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Onestea Arraia-Maeztuko Udalarentzako enplegu publikoaren eskaintza. Hona hemen plaza:

- Plaza: administrari lanpostu bat.
- Taldea: C1.
- Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

Bigarrena. Dagokion iragarkia ALHAOn eta laburpen bat EHAAr argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Lanpostu hutsa bete arte egin beharreko izapideak sustatzea.

Laugarrena. Dekretu honen berri ematea udalbatzari, egiten duen hurrengo saioan.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Maeztu, 2023ko azaroaren 6a

Alkatea

MARÍA GEMMA RAMOS FERNÁNDEZ